

## ORDAINKETA MUGIKORRAREN BITARTEZ EGITEKO PROIEKTU PILOTUA

### PROIEKTUA

Dbus 50 erabiltzaileren bila ari da, NFC teknologia duten mugikorren bitartez ordaintzeko proiektu pilotu berritzaile batean parte hartzeko. Teknologia horrek bidaiatzea errazagoa izatea ahalbidetzen du, billetea gailuaren bitartez ordaintzea eta txartela baimendutako salmenta gune batera joan beharrik gabe kargatzen uzten baitu.



### ABANTAILAK

Proiektua esperientzia aitzindaria da; izan ere, aukera ematen du bi hiritan, Gijonen eta Donostian, garraio publikoan bidaiatu eta garraioaren billetea mugikorrarekin ordaintzeko, bietan gailu bakarra erabiliz.

Horretaz aparte, parte hartze hutsagatik, **20 bidaiak dohainik** izango dituzu Dbuseko autobusetan.

### BALDINTZAK

Proba pilotu honetan parte hartzeko baldintzak hauek dira:

- ✓ Lurraldebus edo Mugi txartel ARRUNTAREN titularra izatea.
- ✓ Movistarreko bezeroa izatea.
- ✓ Samsung Galaxy SIII edo Blackberry modeloko mugikorra edukitzea, 7.0 baino bertsio txikiagoko sistema eragilearekin eta NFC teknologiarekin.
- ✓ Eskabide orria betetzea eta, karnet neurriko argazki batekin batera, hona bidaltzea: [info@dbus.es](mailto:info@dbus.es)

### NOLA AKTIBATUKO DA NIRE MUGIKORRA?

Behin eskaera orria jasota eta onartuta, zurekin harremanetan jarriko gara emandako telefono zenbakian, eta jakinaraziko dizugu nora joan behar duzun zure SIM txartela aldatzeko. SIM txartela aldatu ostean aktibatuko da mugikorraren bitartez ordaintzeko sistema. Prozesu honek gutxi gora-behera astebete iraun dezake.

## ORDAINKETA MUGIKORRAREN BITARTEZ EGITEKO PROIEKTU PILOTUA

### ESKAERA ORRIA

**Mesedez, bete ondorengo atal guztiak:**

#### DATU PERTSONALAK

- Izena : Abizenak :  
- Jaioteguna : NAN :

#### HARREMANETARAKO DATUAK

- Telefono zenbakia: Mugikor modeloa :  
- E-posta :  
- Helbidea :

#### TXARTELAREN INFORMAZIOA

- Lurraldebus/Mugi txartel ARRUNTaren zenbakia:

Onartzen dut Donostiako Tranbia Konpainiari jakinaraztea proban zehar gerta litezken gertaerak, eta sistemaren balorazioa egitea, Konpainiak ezarritako medioen bitartez.

**Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan** ezarritakoaren arabera, interesdunari jakinarazten zaio berak emandako datuak **COMPAÑÍA DEL TRANVÍA DE SAN SEBASTIÁN, S.A.U. – DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, SAU** (aurrerantzean “DTK”) enpresarena den eta Datuen Babeserako Espainiako Agentzian behar bezala inskribatuta dagoen fitxategi batean gordeko direla bere tratamendurako, zehazki helburu hauetarako: (i) interesdunarekin harremanetan egoteko eta harreman hori kudeatzeko; (ii) DTK-k eskaintzen dituen garraio publikoko zerbitzuen kontratazioa eta interesdunak zerbitzu horiei ematen dien erabilera kudeatzeko; eta (iii) DTK-k bere garraio publikoko zerbitzuak ordaintzeko interesdunari onartzen dizkion moduen erabilera kudeatzeko.

Datu pertsonalen gainean eskatzen den informazioa derrigor ematekoa da, eta datu horiek eman ezean edo datu okerrak emanez gero, DTK-k ezingo luke interesdunaren eskaria kudeatu.

Interesdunari jakinarazten zaio bere datuak eskuratu, zuzendu, indargabetu edo aurkatu ditzakeela, eta horretarako idatziz eskatu beharko duela helbide honetara zuzenduta: **COMPAÑÍA DEL TRANVÍA DE SAN SEBASTIÁN, S.A.U. – DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, S.A.U., Fernando Sasiain kalea, 7, 20015 – Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa).**

Eskaera honen bidez, interesdunak baimena berariaz ematen du (i) DTK-k bere datuak lehen zehaztutako helburuetarako erabili ditzan; eta (ii) datu horiek **TELEFÓNICA SOLUCIONES DE INFORMÁTICA Y COMUNICACIONES DE ESPAÑA, S.A.U.** enpresari jakinarazteko, Erabiltzaileak erakunde honek telefonia mugikorriari lotuta eskaintzen dituen ordainketa moduak erabili ahal ditzan.

\_\_\_\_(e)n, 20\_\_\_\_(e)ko \_\_\_\_ aren \_\_\_\_\_ (e)an

..... jn/and.